

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Zabala Zubiarrain

*Aduna,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Maria Luisa Adunako
Garagartza baserrian jaio
zen. Aita bertakoa zuen, eta
ama, berriz, Albizturko
Olateaga baserrikoa. 12
senidetan bigarrena zen bera.
Bera baino zaharragoak
soroan lananean ari ziren
bitartean, ume txikiak
zaintzea izaten zen bere lana.
Gerra ondorenean, sei
urterekin eskolan hasi bazen
ere, etxean nahiko lan izaten
zela eta, sarri etxean gelditu
behar izaten zuen. 14 urte
zituela, 'Talleres Aduna'-n
hasi zen lanean. Ondoren
ezkondu egin zen, Adunan
bertan, eta geroztik hantxe
bizi da.

Zintak

ADU-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-08-27
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Umea zela, etxeko txikiak nola zaintzen zituzten

- **Erref:** ADU-004/003
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Txikitan, ez zuten urik etxean. Sei urte zituela, eskolan hasi zen; eta, handik etorrita, etxean lana egin behar izaten zuten: ura ekarri eta horrelakoak. Umeak ere zaindu behar izaten zituen. Umeentzako haur-oihalik ez zuten izaten. Zapiak erabiltzen zituzten eta umeak estutu egiten zituzten. Zapiak ur irakinetan egosten ziren. Zapiak zuriago geratzeko, belarretan jartzen zituzten. Lau puntako zapiak izaten ziren, goxo-goxoak, zinta batzuekin lotutakoak. Artean bera ere ume zela etxeko ume txikiagoak zaintzen zituen eta askotan eskolara joan gabe geratzen zen.

2. Adunako eskolako oroitzapenak

- **Erref:** ADU-004/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolan neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Zatiketak egitera ez zen iritsi. Hortik aurrera lanean hasi behar izan zuen. Adunako eskolan ume asko zeuden. Donostiako maistra erdaldun bat zuten. Eskola udaletxeko azpiko lokal batean zegoen. Sartu eta berehala Espainiako banderaren aurrean abestu behar izaten zuten. Erditan ez ziren eskolara joaten eta horregatik gutxi ikasi zuten.

3. Erdaraz eskolan entzun zuen lehen aldiz

- **Erref:** ADU-004/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Etxean ez zuten ez irratirik ez telebistarik. Eskolara joan aurretik ez zuten inoiz erdaraz hitz egin. Hala ere, ez ziren kexatzen. Ez zuten gaizki pasatzen. Eskolako kontuei garrantzia gutxi ematen zitzaien. Garai hartan garrantzitsuena lana zen.

4. Eskolako kontuak; zigorrak

- **Erref:** ADU-004/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Eskolan, astean egun batean, laboreak egiten irakasten zien. Eskolan zigorak jartzen zizkieten. Ehun lerro idatzi behar izaten zituzten. Belauniko besoak zabaldua egotea izaten zen beste zigorra. Hanka mahaiari lotzen zieten.

5. Garizumako txartelak

- **Erref:** ADU-004/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:33. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Garai batean garizuman txartel txiki bat jaso behar izaten zuten apaizaren eskuetatik. Hura jaso ahal izateko apaizaren galderak erantzun behar izaten zituzten. Joateko beldurrez egoten ziren. Txartelik gabe jaunartzerik ez zegoen, eta hori lotsagarritzat hartzen zen. Pixkanaka galtzen joan zen ohitura hori.</p>

6. Apaizekin errespetu eta beldur handiko harremana zuten

- **Erref:** ADU-004/008
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:17:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Kalean apaiza ikusiz gero gurutzea egin eta musu eman behar izaten zitzaion. Apaizarekin behin gertatutako pasadizoa kontatzen du. Apaizen mende bizi ziren. Dena beldurra eta bekatua zen garai haietan. Infernua sua zegoela kontatzen zuten. Gauzak asko aldatu dira.</p>

7. Hilero aitormena izaten zuten

- **Erref:** ADU-004/009
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:17:47. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Konfesatzera hilabetero joan behar izaten zuten. Batzuetan, Villabonara joaten ziren beste apaiz batekin konfesatzeko. Ez zuten aitortzeko bekatu

gehiagirik. Penitentzia errezatzea izaten zen. Baltsean ibiliz gero kongregaziotik botatzen zituzten. Gaur, berriz, dana libre da nahiz eta Jainkoa bera izan.</p>

8. Igande arratsaldetako planak

- **Erref:** ADU-004/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Oso gutxi ateratzen ziren. Igandetan kartetan ibiltzen ziren, eskoban eta puntuan. Kartetan emakumeak ibiltzen ziren. Hemezortzi urte zituztenean, Zizurkilgo dantzara joaten hasi ziren. Bezperak eta gero kuadrillan ibiltzen ziren.</p>

9. Festara joateko jantzi eta orrazkerak

- **Erref:** ADU-004/012
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:29:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Gaztetan festetara joaten ziren eta dantzaz zebiltzala ezagutzen zituzten mutilak. Soinua filarmonika izaten zen. Villabonan musika ere izaten zen. Dantzara soineko eta alpargatekin joaten ziren. Jantzia eta orrazkera deskribatzen ditu. Ezpainak ere pintatzen omen zituzten. Ilean dirdira ateratzeko ospina erabiltzen zuten. Ilekizurrak nola egiten zituzten kontatzen du.

10. Gerrako oroitzapenak

- **Erref:** ADU-004/013
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra hasi zenean, sei urte zituen Maria Luisak. Soldaduak etxean lotan izan zituzten. Leihotetan koltxoak jarrita egon ziren. Gerra aurretik ez zuten haren berririk. Gauez tankeak jaisten ziren zaurituak eramanez. Bi emakumeri plazan ilea moztu zietela gogoan du. Garai tristeak izan ziren.

11. Gerra ondorengo gabeziak

- **Erref:** ADU-004/014
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:34:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra ondoren gosea iritsi zen. Taloa gora eta taloa behera ibili ziren. Trenez joaten ziren Legorretako errota irina lortzeko.

12. Ume txiekiei ematen zitzaizkien janariak.

- **Erref:** ADU-004/015
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:34:57. **Bukatu:** 00:36:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

<p>Gerra ondoren bost senide ziren etxean eta jateko nola moldatzen ziren kontatzen du. Etxeko jakiak izaten zituzten. Baratxuri zopa txikitatik ematen zieten. Ahia ere egiten zuten. Ahia nola egiten zuten kontatzen du.</p>

13. Azokara oilaskoak eta arrautzak saltzera

- **Erref:** ADU-004/016
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:36:53. **Bukatu:** 00:37:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Etxeko oilaskoak eta arrautzak azokan saltzen zituzten; gero sardina zaharrak eta olio erosten zituzten.

14. Ume txiekiei bularra ematen zitzaien

- **Erref:** ADU-004/017
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:37:28. **Bukatu:** 00:39:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ume txikiei bularra ematen zitzaien. Maria Luisaren amak bi ume batera ere hazi zituen, bularra emanez.

15. Gerra ondorengo gabeziak; janariak nola kontserbatzen zituzten

- **Erref:** ADU-004/018
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Gerra ondoren gosea baino gehiago inbidia pasa zuten. Patatak, potajea eta taloa izaten zituzten. Ogia zen gehien nahi izaten zutena. Etxean txerria ere hiltzen zuten. Jana mantentzeko gazitu egiten zuten. Txorizoak-eta oliotan kontserbatzen zituzten. Eulietatik babesteko sare berezi batzuk erabiltzen zituzten.</p>

16. Gerra ondorena garai tristea izan zen

- **Erref:** ADU-004/019
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra ondorengo oso garai tristea izan zen. Soldadutzako mutilen gutunen zain egoten ziren. Mutil gazte asko hil ziren.

17. Ijitoak diru eske etxeetara joaten ziren

- **Erref:** ADU-004/020
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:44:50. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra ondoren ijitoak eskean ibiltzen ziren. Arrantzaleak buruan saskia hartuta saltzera etortzen ziren Andoaindik. Ijitoek dirua eta ogia eskatzen zituzten.

18. Aduna inguruan ibiltzen ziren ijitoak

- **Erref:** ADU-004/022
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:46:02. **Bukatu:** 00:48:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Ijitoek dirua eskatzera etortzen zitzaizkien. Ijito euskaldunak ziren. Ijito haiek karroekin ibiltzen ziren eta zubi azpian jartzen zuten kanpamendua. Jendea haien beldur izaten zen, lapurretan ibiltzen zirelako.

19. Tolosakoa euskara politena eta garbiena da

- **Erref:** ADU-004/024
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:50:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Tolosaldeako euskara hoberena dela iruditzen zaio, politena eta garbiena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com